



FAMILIEN GIDA

2021-2022



AURKEZPENA

Familia agurgarriak, gida hau zuen eskuetara iritsi bada, zuen semea edo alaba **Egin & Ekin** programan parte hartzen ari delako da. Kultura ekintzailea sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren eskola programa.

Gazte bakoitzak bere bidea egin dezan laguntzea helburu dugularik planteatu dugu aurtengo alea. Alde batetik, ikasleek etorkizunerako orientazio gutxi dutenaren sententzia dutelako, eta bestetik, azkenaldian enpresak sumatzen ari direlako behar dituzten perfilen eskasia ere.

Zentzu honetan, familiaren baitan hainbatetan entzuten dira guraso eta helduen partetik esaldi garrantzitsuak: *“aukeratu gustukoa duzun hori”, “bizitzan urte asko emango dituzu lanean, hobe gustuko duzun zerbaitean aritzea”, “irteerarik ba ote du ikasketa horrek?”* e.a. Gazteek mezu hauek entzun eta euren buruari galdetzen diote orduan: *“Zer gustatzen zait?”* baina askok erantzunik gabe geratzen dira. Ez dakite zer duten gustuko, ez dutelako euren burua ondo ezagutzen. Bai esperientzia faltagatik, bai erreferente gutxi dituztelako, edo baita etorkizuna ez dutelako ondo planteatu oraindik.

Arazo hau konpondu nahian, ale honetan ekintzaile izateko eta bizitzan hain garrantzitsuak diren gaitasunak landuko ditugu, hala nola, **Norbere buruaren ezagutza eta konfiantza**, eta **Erabakiak hartzea**, beti ere familiarik egin dezakeguna planteatuz.



ORIENTAZIOA

Pandemiak digitalizazioan azeleragailua zalpaltzera behartu gaitu. Hala ere, aspalditik Euskal Autonomi Erkidegoan 4.0 Industria bultzatzen daramagu. Izan ere, industrian enpresek beren produktuak fabrikatzeko, hobetzeko eta banatzeko duten moduari dagokionez iraultza bat bizitzen ari gara. Fabrikatzaileak ekoizpen-instalazioetan eta eragiketa guztietan teknologiak integratzen ari dira. Lantegi adimendun horiek sentsore aurreratuak, software integratua eta robotikoa dituzte, datuak bildu eta aztertzen dituzte eta erabaki hobeak hartzeko aukera ematen dute. Honen adibide da, **4Gune klusterra**. Unibertsitatea enpresara hurbiltzea helburu duelarik, bien arteko lankidetzak praktikoa bultzatuz.

4Gune Klusterra ekimenarekin jarraituz, Eusko Jaurlaritzak kultura- eta sormen-industrien sektoreari bultzada handi bat ere eman dio **KSIGune klusterra**-ren sorrerarekin baita ere.

Inplika-ko Zigor Maritxalarren arabera (prestatuntza- eta enplegarritasun-enpresa), gaur egun Europan bete gabeko milioi erdi lanpostu daude **profil digitala** eskatzen dutenak. Teknologia berriekin eta mundu digitalarekin zerikusia duen guztia da gehien eskatzen dena: multimedia aplikazioak, web aplikazioak, bideo-jokoak, errealitate birtuala eta areagotua, marketin digitala, eta sareen formakuntzak besteak beste.

Honen ildo berdinetik, hain arrakastatsua den ikas-ekinezko erregimeneko **lanbide-heziketa dualaren** ereduak daukagu. Hauxe, bi modalitateen arabera garatzen ari da. Modalitateetako

bat LHko zikloetan eskuratutako gaitasunak indartzeko pentsatuta dago, eta bigarrena, berriz, espezializazio eta konplexutasun handiena duten premiei erantzuteko. Honez gain, ikasleak erakartzeko Eusko Jaurlaritzak hartu duen beste neurri bat gradu zientifiko-teknologikoetako matrikulen prezioa %5 jaitea izan da.

Egin eta Ekin programatik helarazi nahi dugun beste mezu bat da **industria eta zientzia nesken kontua ere badirela**. Eta alaba nerabeak dituzten familia guztiak gonbidatzen ditugu horrelako ibilbideak aukeratzera animatu ditzaten. Izan ere, Lanbide Heziketa industrialeko emakumeen ehuneko txikiagoa hautapen profesionalari lotutako aurreiritziei dagokie, eta ez emakumeen gaitasun tekniko txikiagoari.

Gainera, epe ertain eta luzerako aurreikuspenek adierazten dute sektore horretako lan-aukerak ugariagoak izango direla. Eta industriako heziketa-zikloetako soldata, oro har, zerbitzu-sektorekoa baino handiagoa da (emakumeen enpleguaren eremu tradizionala). Hau gutxi balitz, indar fisikoa jada ez da faktore garrantzitsua, eta horrela, eredu izango dira beste emakume batzuentzat.

Gurasook Lanbide Heziketaren adar hori ikastea planteatzen ari diren neska gazteei lagundu behar diegu bidea irekitzen. Horrela, zure alabak Lanbide Heziketa industrialaren ezagutze jakin-mina badu, hurbildu zaitzete Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeetara, eta, ondoren, hartu erabaki bat, aurreiritzirik gabe.

Industria-sektoreetan lan egiten duten emakumeen testigantza bertatik bertara ezagutzea da emakumeak industria-sektoretik urruntzen dituzten estereotipoen eta aurreiritzien aurkako txertorik onena.



NORBERE BURUAREN EZAGUTZA ETA KONFIDANTZA

Azken urteetan ekimenerako kompetentzia lantzeko ekintza ezberdinak lantzen ari gara eta familiaren aldetik zuen seme alabei euren bidea egiten laguntzeko gaitasun ezberdinak lantzea ere komeni da. Gaitasun guzti hauen oinarria **norbere buruaren ezagutza eta konfidantza** delarik.

Azken bi ikasturteetan gehien egin den galderetako bat pandemiak euskal ikasleen eskola-errendimenduan izan duen eraginari buruzkoa izan da. Eta badago galdera horren erantzuna: Espero zitekeen bezala, ISEI-IVEI (Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak) egingdako azken Ebaluazio Diagnostikoaren arabera (ED2021) oinarritzko gaitasunen maila akademikoak okerrera egin du oro har.

Bildarratz Kabinetearen lehen tasunetako bat **ikasleen ongizate emozionala berreskuratzea** eta eskola-komunitatea ikasturte honetarako "normaltasun berrira" egokitzea da. "Trebetasun sozio-emozionalak sustatzea", bai eta ikasleen artean "portaera sozial positiboak" edo oinarritzkoak diruditen gauzak bultzatzea ere, hala nola baloratua sentitzea. Horren guztia-aren helburua "ikasleen motibazioa eta interesa areagotzea" dela esan du. Izan ere, pandemiak hankaz gora jarri du ikasle batzuen auto-konfiantza.

Familia giroan zentzu honetan nerabeak indartzea ez da lan erreza. Izan ere, azkenaldian etengabe mezu negatiboak jasotzen ari dira (arduragabekeriak jokatzeko dutela, berekoiak direla, ez direla errealitateaz jabetzen, e.a.). Mezu hauei nerabeek berez bizi duten krisiari

batuta, oso ondorio negatiboak izan ditzakete euren auto-estimuan.

Horregaitik, gurasook honakoak kontuan hartu eta aplikatzea komeni da:

- **Eskatu zure seme-alabaren iritzia.** Nerabeei asko gustatzen zaie heldu gisa tratatuak izatea, eta normalean pozik sentitzen dira helduen munduan parte hartzera gonbidatzen dituzten bakoitzean.
- **Animatu gazteak beren talentuak eta interesak lantzea.** Denak gailentzen dira zerbaitean. Denek behar dute zerbaitean nabarmendu. Utzizu seme edo alaba bati bere pasioaren atzetik joaten, pasio hori edozein dela ere. Arrazoi gehiagorekin ekintzailatzaz hitz egiten dugunean. Izan ere, **ekintzaile gehienek beren zaletasunetatik abiatuta garatzen dute negozio-idea.**
- **Laudatu seme-alaba ez bakarrik lorpenengatik, baina ahaleginengatik ere,** nahi dituen emaitzak lortzen ez dituen aldiak barne.
- **Kritika ezazu beharrezkoa denean, baina modu eraikitzailean.** Inoiz ez modu iraingarrian.
- **Nerabeek, familiek ez ezik, komunitateak ere aintzat hartzen dituela sentitu nahi dute.** Nerabeek zerbitzu komunitarioa egiten dutenean, beren buruarekin ondo sentiarazten dituzten iruzkin positiboak jasotzen dituzte. Batzuetan ikastetxeetan antolatu egiten dira ikasteko eta zerbitzu solidarioak sustatzeko proiektuak. Euskal Autonomi Erkidegoan **Zerbikas Fundazioak** adibidez

metodologia horretan oinarritutako proiektuak sustatzen, zabaltzen eta antolatzen ditu oso emaitza positiboekin.

- Amaitzeko, *perfekzionismoarekin dagoen arazoak jabetu behar gara.* Ez ditugu gure seme-alabak horretara bultzatu behar, baizik eta oinarritzkoak diren baloreak transmititu, eta euren bidea egiten lagundu. Bestela, perfektuak ez izatearen beldur horrek bere sormena itoko du, bere alaitasuna sentitzeko trebetasuna eragotziko du eta, azkenik, bere arrakasta oztopatuko du.

"Kovid efektuak" errendimendua baldintzatu du, eta ez onerako. Izan ere, ikasleen %72 desmotibatuago sentitu dira ikasteko, eta hiru ikasletik bik (%65,4) maila akademikoa jaitsi egin dela sumatu dute.



ERABAKIAK HARTZEA

Nerabeek euren etorkizuna zalantzez beteriko ibilbide bat bezala ikusten dute. Horregatik, entrenatu beharreko beste gaitasun bat **erabakiak hartzea**ri buruzkoa da.

Une oro erabakiak hartzen ari gara, baina ez diogu merezi duten garrantzia ematen eta automatikoki egiten dugu, adibidez; zer jantziko dut gaur, zer postre aukeratu, zer ordutan esnatu, e.a. Beste erabaki batzuk, ordea, ezin dira automatikoki hartu. Hausnarketa sakona merezi dute, eta orduan izaten dira erabakiak hartzeko zailtasunak. Erabaki bat hartzean abantailak ikusten ditugunean, baina aldi berean desabantailak ere.

- Zentzu honetan, guraso bezala transmititu behar dugun gauzarik garrantzitsuena erabakia gaztearen esku dagoela jakitea da, eta ez beste inorenean. Erabaki bat hartzeko aukeran daudenean, **euren kabuz egin ditzatela**. Iritziaren bat nahi badute, emaeizu, jo ezazu profesionalengana, erabaki nahi duten gaien esperientzia duten pertsonengana. Eta informazio guztia helarazi, ahalik eta modu neutroenean.
- **Bere ikuspegia zabaltzen lagundu.** Batzuetan izutu egiten dira, eta ezin dute pentsatu, euren burmuinak lan eta lan egiten badu ere, gaiari bueltak eman besterik ez du egingo, ezer erabaki gabe. Orduan, beste ikuspegi batzuk azaltzen saia gaitzke, datu berriekin informazioa zabaltzen, geroago arazoa beste angelu batetik behatzeko.
- **Ez deztatela utzi gerorako.** Askok huts horretan erortzen gara, kontuz! Egia esan, sines-

ten ez badute ere, oso erraza da erabakiak hartzea, baldin eta argi badute zer nahi duten. **Introspektzioa** da gakoa, euren burua hobeto ezagututa euren ekintza-plana gauzatzea baino ez da falta, hau da, nola lortuko duten zehazteko estrategiak. Horretarako, tresna asko dituzte lagun.

Hala ere, guraso bezala transmititu behar diegu edozein erabaki “erabakirik ez hartzea” baino hobea dela. Huts egiten badute, ez dute

ezer galtzen, baina saiatu dira behintzat, eta irabazten badute, pozik sentituko dira saiatu direlako.

Ekintzaile arrakastatsuek emaitzaren ziurgabetasunerara egokitu dira. Ez diete uzten zalantzarik energia eta denbora kentzen. Beraiek ulertzen dute erabaki bat hartzea, okerra bada ere, aurrera egiteko bultzada bat dela. Eta gure seme-alabak horretan sinestea da gurasoon eginbeharra. Nola? Beti bezala, **eredu izaten**.



Ekintzailetzan askotan esaten da erabaki bat hartzea dela aurrera egiteko modu bakarra. Baita erabaki okerrak badira ere.